**Serie I:**
**PLANES, COMUNICACIONES Y PROGRAMAS**

# Resoluciones aprobadas por el Pleno en sesión celebrada el día 18 de octubre de 2012, con motivo del debate de política general sobre el estado de la Comunidad

En ejecución de lo dispuesto en el Reglamento de la Cámara, se ordena la publicación en el Boletín Oficial del Parlamento de Navarra, de las resoluciones aprobadas por el Pleno del Parlamento de Navarra en sesión celebrada el día 18 de octubre de 2012, con motivo del debate de política general sobre el estado de la Comunidad.

Pamplona, 19 de octubre de 2012

El Presidente: Alberto Catalán Higueras

## Resoluciones aprobadas por el Pleno en sesión celebrada el día 18 de octubre de 2012, con motivo del debate de política general sobre el estado de la Comunidad

**Primera.** El Parlamento de Navarra insta al Gobierno de Navarra a realizar e implementar un Plan Industrial y un Plan de Empleo Juvenil, que establezca objetivos concretos temporal y territorial mente, y que contemple entre otras medidas la creación de instrumentos que faciliten la financiación empresarial, renueve y reformule los beneficios fiscales, y que programe actuaciones a corto y medio plazo para favorecer la creación de empleo destinado a los jóvenes. Dichos planes serán elaborados en el plazo de dos meses, y remitirse al Parlamento para su debate y aprobación.

**Segunda.** El Parlamento de Navarra insta al Gobierno de Navarra a promover las modificaciones legales de los Impuestos de la Renta y del Patrimonio para aumentar la tributación de las rentas mas altas y el patrimonio de las grandes fortunas, así como a elaborar una nueva estrategia de lucha contra el fraude fiscal.

**Tercera.** El Parlamento de Navarra insta al Gobierno de Navarra a defender el carácter público, universal, gratuito y de calidad de nuestro Sistema Nacional de Salud y, por consiguiente, del Servicio Navarro de Salud-Osasunbidea, para garantizar la asistencia sanitaria en las mismas condiciones a todos los ciudadanos y ciudadanas tal y como se contempla en la Ley General de Sanidad, en la Ley de Salud Pública y en la Ley Foral de Derechos y Deberes de las personas en materia de Salud.

El Parlamento de Navarra rechaza las fórmulas de copago (repago) en la asistencia sanitaria o farmacéutica así como en el transporte sanitario no urgente e insta al Gobierno de Navarra a defender con todos los instrumentos a su alcance, nuestras competencias en la materia, así como a buscar cuantas fórmulas legales estime oportunas para contraponer el modelo universal, gratuito y de calidad, al modelo que el Gobierno del PP está institucionalizando con la excusa de la crisis.

**Cuarta.** El Parlamento de Navarra insta al Gobierno de Navarra a, en el plazo de seis meses desde la aprobación de la presente Propuesta de Resolución, articular un PLAN DE EMPLEO JUVENIL, como plan de choque, que tenga en cuenta, cuando menos, los siguientes elementos:

La identificación de las características y condiciones de nuestros jóvenes en situación de desempleo: tipo de formación, titulación o no y alcance de la misma y sectores de procedencia en caso de haber estado trabajando con anterioridad.

Identificación de posibles nichos de empleo joven en los diferentes sectores de actividad.

Una oferta de acciones para cada segmento identificado: formación específica para la reorientación laboral, becas, ayudas especiales a las empresas para su contratación preferente, ayudas especiales al emprendimiento empresarial joven, financiación de iniciativas y coberturas de riesgos por inicio de actividad.

**Quinta.** El Parlamento de Navarra manifiesta su apuesta por la Educación como herramienta

fundamental para el desarrollo de una sociedad compuesta por ciudadanos libres y responsables, e insta al Gobierno de Navarra a que, en uso de sus competencias, defienda y potencie, el sistema público de educación como garante de la igualdad de oportunidades, cohesión social e inclusión, elementos fundamentales que han de estar presentes en nuestra sociedad y han de ser la base de nuestra educación.

En esta línea deberá dotar adecuadamente a sus centros con los medios precisos para ofrecer una educación de calidad que permita el éxito escolar de todos y todas, así como la garantía de compensación entre las personas y las zonas que requieran esfuerzos especiales.

**Sexta.** El Parlamento de Navarra manifiesta su convicción acerca de la necesidad de abandonar las actuales políticas restrictivas que únicamente contribuyen al empeoramiento de la situación económica y acometer medidas anticíclicas dirigidas a la reactivación económica y la generación de empleo. Igualmente considera necesario un sistema fiscal equitativo, progresivo y redistribuidor, que permita sostener un sistema de prestaciones sociales avanzado.

Asimismo, es necesario atender las graves necesidades de los agricultores y ganaderos de Navarra.

**Séptima.** El Parlamento de Navarra, mayoritariamente, manifiesta su total falta de confianza hacia la Presidenta del Gobierno Sra. Yolanda Barcina y hacia su Gobierno, por considerarles incapaces de resolver, de forma adecuada y favorable, para la mayoría social, la grave situación de crisis económica, social y de empleo, por la que atraviesa nuestra Comunidad.

**Octava.** El Parlamento de Navarra, de la misma manera, rechaza los recortes en materia de educación y salud, otrora pilares del estado de bienestar junto con las políticas sociales, que semana a semana se van implantando en la Comunidad Foral.

**Novena.** El Parlamento de Navarra expresa su total rechazo a la continua vulneración de nuestras competencias que, mediante el procedimiento de Real Decreto-ley, está aplicando el PP desde el Gobierno del España, y cuya práctica esta suponiendo una profunda limitación o pérdida del autogobierno de Navarra.

El Parlamento de Navarra muestra su compromiso con la defensa y el desarrollo de nuestro pleno autogobierno, apostando por una decidida profundización en el mismo, desde el convencimiento en que supone una herramienta fundamental para el desarrollo social, económico y democrático de Navarra.

**Décima.** 1. El parlamento de Navarra constata el fracaso de la política económica del Gobierno de Navarra presidido por Doña Yolanda Barcina Angulo; política económica cuyas consecuencias más dramáticas se sitúan en los inaceptables índices de desempleo.

2. El Parlamento de Navarra considera necesario y urgente la implementación de una política económica alternativa fundamentada en los siguientes pilares:

Una nueva política fiscal alternativa que con auténtica determinación aborde una eficaz lucha contra el fraude, profundice en la redistribución de la riqueza, aumente la progresividad y suprima los actuales privilegios de los beneficios empresariales y especulativos y de las grandes rentas. Una nueva política fiscal garante de la financiación de unos servicios públicos universales y de calidad.

Una nueva definición de los criterios de gasto y ejecución presupuestaria que priorice la financiación de los servicios públicos y políticas sociales garantes de la justicia social, así como inversiones públicas productivas generadoras de dinamismo económico y empleo de calidad, frente al gasto en injustificadas prebendas de altos cargos y costosas infraestructuras sin ningún retorno económico, social y medioambiental justificado.

Una apuesta decidida y comprometida por la educación y la formación como mejor valor añadido competitivo de la ciudadanía de Navarra y la disposición redoblada de recursos al servicio de la I+D+I pública.

El inicio inmediato de un proceso de análisis y búsqueda de fórmulas efectivas para su activación en un breve espacio de tiempo de un servicio de financiación de nuestras empresas y autónomos de los servicios propios de una Banca Pública, tras la desaparición de la CAN.

**Undécima.** El Parlamento de Navarra muestra su compromiso con el proceso de Paz y normalización política, así como con la reconciliación social y la convivencia, la democracia y el ejercicio de todos los derechos que corresponden a todas las personas y todos los colectivos.

**Duodécima.** 1. El Parlamento de Navarra considera absolutamente irresponsable la actuación de la Presidenta del Gobierno de Navarra, Sra. Barcina, al frente de un Gobierno que se constata ineficaz, roto y en minoría.

2.- El Parlamento de Navarra constata la incapacidad objetiva del actual Gobierno de Navarra de UPN para dar solución a los problemas de la sociedad navarra.

**Decimotercera.** 1. El Parlamento de Navarra reprueba la opacidad y falta de transparencia en su gestión del Gobierno de Navarra presidido por Doña Yolanda Barcina Angulo.

2. El Parlamento de Navarra manifiesta su compromiso democrático con el derecho a la información que corresponde a la ciudadanía y muestra su voluntad de actuación en orden a garantizar el derecho a la información negado a la sociedad y a sus representantes parlamentarios.

**Decimocuarta.** El Parlamento de Navarra manifiesta su compromiso en la defensa y apoyo del régimen foral de Navarra basado en la Ley de Amejoramiento, reconocida en la Constitución Española e instrumento de progreso y bienestar para nuestra Comunidad en las tres últimas décadas.

**Decimoquinta.** El Parlamento de Navarra reafirma la plena vigencia de la Ley Foral 9/2010, de 28 de abril, de ayudas a las víctimas del terrorismo y se compromete a su fortalecimiento mediante la incorporación del concepto de la Memoria para prevenir, proteger, mantener y salvaguardar el legado de las víctimas del terrorismo.

**Decimosexta.** El Parlamento de Navarra se compromete a garantizar mediante partida presupuestaria firme y sin posibilidad de cancelación ejecutoria, ayudas económicas a la familia; especialmente a las familias numerosas y sin recursos.

**Decimoséptima.** El Parlamento de Navarra muestra su compromiso de a poyar la creación de empleo y la reactivación económica con los recursos derivados de:

La aprobación en 2012 de una reforma fiscal que aumente la tributación de las rentas altas, de capital, de los grandes patrimonios, de las grandes empresas y de la lucha contra el fraude.

La creación de una Banca Pública al servicio del desarrollo económico y social de Navarra

**Decimoctava**. El Parlamento de Navarra muestra su apoyo las movilizaciones de los trabajadores y de la ciudadanía contra los recortes sociales y de derechos, y expresa la necesidad de que las luchas sociales sean generales, solidarias y unitarias contra las políticas neoliberales.

**Decimonovena.** El Parlamento de Navarra muestra su compromiso firme de actuar para reforzar y priorizar los servicios públicos: educación, sanidad, dependencia y servicios sociales a través del empleo público con el fin de garantizar una atención universal a la ciudadanía en relación a la satisfacción de sus necesidades básicas.

**Vigésima.** El Parlamento de Navarra muestra su reconocimiento a la pluralidad política, social, lingüística e identitaria de Navarra, como elementos enriquecedores para nuestra comunidad, así como su apuesta por la defensa de principios como el respeto mutuo y la no imposición en materia identitaria y la garantía de derechos de todas las personas en materia de lengua, identidad, pluralidad política y social.

**Vigesimoprimera.** El Parlamento de Navarra, una vez más, muestra su apoyo, su comprensión y su solidaridad a las víctimas del terrorismo, reconociendo la eterna deuda que la democracia tiene con ellas, por ser un símbolo permanente de la lucha por la libertad y por la justicia.

**Vigesimosegunda.** El Parlamento de Navarra manifiesta su compromiso con el cumplimiento del objetivo de déficit, imprescindible para recuperar la confianza en nuestra economía, así como su apuesta por políticas que permitan aumentar la competitividad de la economía y asegurar la financiación de las políticas sociales y de los servicios públicos, implementando medidas a fin de favorecer la creación de empleo.

**Vigesimotercera.** El Parlamento de Navarra muestra, una vez más, su compromiso con el autogobierno y con los derechos originarios e históricos de la Comunidad Foral de Navarra, en el marco de la Ley de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra y de la Constitución Española.

**Vigesimocuarta.** El Parlamento de Navarra manifiesta su compromiso con la racionalización administrativa, la eliminación de trabas burocráticas, la simplificación de la normativa y de sus procedimientos, para evitar duplicidades y con el objetivo de que la administración cueste menos al conjunto de los ciudadanos.

**Vigesimoquinta.** El Parlamento de Navarra insta al Gobierno de Navarra a que, en virtud de nuestra competencia en materia fiscal, solicite al Gobierno de España la participación de nuestra Comunidad en las reuniones del grupo de trabajo del ECOFIN, en aquellos temas que puedan afectar al Convenio Económico conforme a lo dispuesto en el artículo 65 de la LORAFNA.

Depósito Legal: NA – 180-1980 ISSN 2254 – 1969

**I saila:**
**PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK**

# Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2012ko urriaren 19an onetsitako erabakiak.

Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatua betetzeko agintzen da Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2012ko urriaren 19an onetsitako erabakiak.

Iruñean, 2012ko urriaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

## Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2012ko urriaren 19an onetsitako erabakiak

**Lehena.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du industria plan bat eta gazteentzako enplegu plan bat egin eta ezar ditzan, eta haietan denboraren eta lurraldearen ikuspuntutik helburu zehatzak jaso ditzan. Plan horietan, beste neurri batzuen artean, jasoko da enpresen finantzaketa errazteko tresnen sorrerari dagokiona; onura fiskalak berritu eta birformulatuko dira; eta epe labur eta ertaineko jarduketak programatuko dira, gazteei zuzendutako enpleguaren sorrera errazteko. Plan horiek bi hilabeteko epean eginen dira, eta Parlamentura igorriko dira, eztabaidatu eta onets ditzan.

**Bigarrena.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du errentaren eta ondarearen gaineko zergen lege-aldaketak susta ditzan, errenta altuenengatiko eta fortuna handiak dituztenen ondarearengatiko zerga-ordainketa handitzeko, eta iruzur fiskalaren aurkako estrategia berri bat egin dezan.

**Hirugarrena.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gure osasun sistema nazionalaren –eta, horrenbestez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren– izaera publiko, unibertsal, doako eta kalitatekoa defenda dezan, herritar guztiei osasun laguntza baldintza beretan ematea bermatzeko, Osasunari buruzko Lege Orokorrean, Osasun Publikoari buruzko Legean eta Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonek dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko Foru Legean jasota ageri den bezala.

Nafarroako Parlamentuak koordainketako (berrordainketa) formulak errefusatzen ditu osasun- edo farmazia-laguntzarako, bai eta larrialdikoa ez den osasun-garraiorako ere, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du bere esku dituen tresna guztiekin defenda ditzan alor horretan dauzkagun eskumenak, eta egokitzat jotzen dituen lege-formula guztiak bila ditzan eredu unibertsal, doako eta kalitatekoa lehenesteko PPren Gobernua krisiaren aitzakiarekin erakundeetara eramaten ari den ereduaren aurretik.

**Laugarrena.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du erabaki proposamen hau onetsi eta sei hilabeteko epean GAZTEENTZAKO ENPLEGU PLAN BAT artikula dezan, berehalako plan gisa. Plan horrek, gutxienez ere, honako elementuak hartuko ditu kontuan:

Langabezia egoeran dauden gure gazteen ezaugarri eta baldintzak identifikatzea: prestakuntza mota, titulaziorik duten ala ez duten eta titulazio hori norainokoa den, eta zein lan-sektoretatik datozen, aurrez lan egin baldin badute.

Gazteentzako balizko enplegu-zokoak identifikatzea, jarduera-sektore desberdinetan.

Identifikatutako segmentu bakoitzerako ekintza-eskaintza bat: lanean berrorientatzeko berariazko prestakuntza, bekak, enpresei laguntzak ematea haiek kontratazioan lehenesteko, gazteen enpresa-ekintzailetzarako laguntza bereziak, ekimenak finantzatzea eta jarduera batean hastearen ondoriozko arriskuak estaltzea.

**Bosgarrena.** Nafarroako Parlamentuak adierazten du hezkuntzaren aldeko apustua egiten

duela, herritar libre eta arduratsuek osatutako gizarte bat garatzeko funtsezko tresna gisa, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du bere eskumenez baliatuta defenda eta indar dezan hezkuntza sistema publikoa, aukeren berdintasunaren, gizarte kohesioaren eta inklusioaren bermatzaile gisa; izan ere, horiek gure gizartean presente egon behar duten funtsezko elementuak dira, eta gure hezkuntzaren oinarria izan behar dute.

Ildo horretatik, bere ikastetxeei behar bezalako zuzkidura eman beharko die, guztiek eskolan arrakasta izan dezatela bermatzen duen kalitatezko hezkuntza bat eskaintzeko, behar diren bitartekoekin; halaber, ahalegin bereziak eskatzen dituzten pertsonentzako eta eskualdeentzako oreka bermatu beharko du.

**Seigarrena.** Nafarroako Parlamentuak adierazten du sinesten duela egungo politika murriztaileak alde batera utzi behar direla, zeren eta egoera ekonomikoa okertzen lagundu besterik ez baitute egiten, eta zikloaren aurkako neurriak hartu behar direla, ekonomia berrabiatzeko eta enplegua sortzeko. Halaber, jotzen du beharrezkoa dela sistema fiskal ekitatibo, progresibo eta birbanatzaile bat edukitzea, gizarte prestazioen sistema aurreratu bati sostengua emanen diona.

Halaber, beharrezkoa da Nafarroako nekazari eta abeltzainen premia larriei kasu egitea.

**Zazpigarrena.** Nafarroako Parlamentuaren gehiengoak adierazten du ez duela inolako konfiantzarik ez Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina andrearengan, ez eta haren gobernuarengan ere, jotzen baitu ezgauza direla gehiengo sozialarentzat behar bezala eta modu onuragarrian konponbidea emateko gure erkidegoak bizi duen krisi ekonomiko, sozial eta enplegukoaren egoera larriari.

**Zortzigarrena.** Nafarroako Parlamentuak, era berean, hezkuntzaren eta osasunaren arloko murrizketak errefusatzen ditu, bi arlo horiek, aurreko garaietan, ongizatearen estatuaren zutarriak izan baitira, gizarte politikekin batera. Murrizketak, izan ere, astero-astero ezartzen ari dira foru erkidegoan.

**Bederatzigarrena.** Nafarroako Parlamentuak adierazten du guztiz errefusatzen duela gure eskumenen urratze jarraitua, zeina PP Espainiako Gobernutik aplikatzen ari baita errege lege-dekretuaren prozeduraren bitartez, jokamolde hori Nafarroako autogobernua sakonki mugatzen edo galarazten ari baita.

Nafarroako Parlamentuak gure erabateko autogobernua aldezteko eta garatzeko konpromisoa adierazten du, eta autogobernuan sakontzeko apustu sendoa egiten du, sinetsita baitago funtsezko tresna dela Nafarroaren garapen sozial, ekonomiko eta demokratikorako.

**Hamargarrena.** 1.- Nafarroako Parlamentuak egiaztatzen du Yolanda Barcina Angulo andrea buru duen Nafarroako Gobernuaren politika ekonomikoaren porrota. Politika ekonomiko horren ondorio dramatikoenak langabezia tasa onartezinetan aurki daitezke.

2.- Nafarroako Parlamentuak jotzen du beharrezkoa eta presakoa dela honako zutarrietan oinarrituko den ordezko politika ekonomiko bat ezartzea:

Ordezko politika fiskal berri bat, zeinak egiazko erabakitasunez iruzurraren aurkako borroka eraginkorrari ekin, aberastasunaren birbanaketan sakondu, progresibotasuna areagotu eta egungo enpresa-etekin nahiz etekin espekulatiboen eta errenta handien pribilegioak deuseztatuko baititu. Zerbitzu publiko unibertsal eta kalitatezko batzuen finantziazioa bermatuko duen politika fiskal berri bat.

Gasturako eta aurrekontu-betetzerako irizpideen definizio berri bat, zerbitzu publikoen eta justizia soziala bermatuko duten politika sozialen finantziazioa lehenetsiko duena, bai eta dinamismo ekonomikoa eta kalitatezko enplegua sortzen duten inbertsio publiko produktiboak ere, goi karguen prebenda justifikaezinetan egiten den gastuaren aurretik, eta inongo itzulkin ekonomiko, sozial eta ingurumeneko justifikaturik ez dakarten azpiegitura garestien aurretik.

Hezkuntzaren eta prestakuntzaren aldeko apustu irmo eta konprometitua, Nafarroako herritarren balio erantsi lehiakor onena direlakoan. Halaber, I+G+B publikoaren zerbitzura jarritako baliabideak biderkatzearen aldeko apustu irmo eta konprometitua.

Berehala hastea formula eraginkorrak aztertu eta aurkitzeko prozesu bat, formula horien bidez laster aktibatzeko gure enpresa eta autonomoentzako finantziazio zerbitzu bat, banka publiko batek berezko dituen zerbitzuak emanda, Nafarroako Aurrezki Kutxa desagertu ondoren.

**Hamaikagarrena.** Nafarroako Parlamentuak bake eta normalizazio politikoko prozesuarekiko bere konpromisoa adierazten du, bai eta adiskidetze sozialarekiko eta bizikidetasunarekiko, demokraziarekiko eta pertsona eta kolektibo guztiei dagozkien eskubide guztiak betetzearekiko konpromisoa ere.

**Hamabigarrena.** 1.- Nafarroako Parlamentuak jotzen du guztiz arduragabea dela Nafarroako Gobernuko lehendakari Barcina andrearen jarduna, eragingabe, hautsi eta gutxiengo izatera pasa dela frogatu den gobernu baten buru gisa aurrera eraman duena.

2.- Nafarroako Parlamentuak egiaztatzen du UPNren egungo Nafarroako Gobernua ezgauza dela Nafarroako gizartearen arazoei konponbidea emateko.

**Hamahirugarrena.** 1.- Nafarroako Parlamentuak gaitzesten du Yolanda Barcina Angulo andrea buru duen Nafarroako Gobernuak bere kudeaketan dauzkan iluntasuna eta gardentasun falta.

2.- Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere konpromiso demokratikoa herritarrei dagokien informazio eskubidearekin eta adierazten du jarduteko borondatea duela gizarteari eta haren parlamentu-ordezkariei ukatzen zaien informazio eskubidea bermatze aldera.

**Hamalaugarrena.** Nafarroako Parlamentuak adierazten du konpromisoa hartzen duela Nafarroako foru araubidea defendatu eta babesteko, zeina oinarritzen baita Foruaren Hobekuntza Legean, Espainiako Konstituzioan aitortua izan den eta gure erkidegoarentzat azken hiru hamarkadetan aurrerapenerako eta ongizaterako tresna izan den horretan.

**Hamabosgarrena.** Nafarroako Parlamentuak berresten du Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legea indarrean dagoela guztiz, eta konpromisoa hartzen du hura oroimenaren kontzeptua gehituz indartzeko, horrela terrorismoa prebenitzeko eta haren biktimek utzi diguten eredua babestu, mantendu eta zaintzeko.

**Hamaseigarrena.** Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du kontusail finko baten bitartez –exekuzioa deuseztatzeko aukerarik gabe– familientzako laguntza ekonomikoak bermatzeko; bereziki, familia ugariei eta baliabiderik gabekoei dagokienez.

**Hamazazpigarrena.** Nafarroako Parlamentuak konpromisoa adierazten du enpleguaren sorrera eta berrabiatze ekonomikoa babesteko, ondokoetatik eratortzen diren baliabideekin:

2012an erreforma fiskal bat onestea, errenta altuen, kapitaleko errenten, ondare handiak dituztenen eta enpresa handien zergak handitzeko, eta iruzurraren aurka borrokatzeko.

Banka publiko bat sortzea, Nafarroako garapen ekonomiko eta sozialaren zerbitzura.

**Hemezortzigarrena.** Nafarroako Parlamentuak bere babesa erakusten die langileek eta herritarrek murrizketa sozialen eta eskubide-murrizketen aurka eginiko mobilizazioei, eta adierazten du beharrezkoa dela politika neoliberalen aurkako gatazka sozialak orokorrak, solidarioak eta bateratuak izan daitezela.

**Hemeretzigarrena.** Nafarroako Parlamentuak bere konpromiso irmoa erakusten du zerbitzu publikoak –hezkuntza, osasuna, menpekotasuna eta gizarte zerbitzuak– indartu eta lehenesteko, enplegu publikoaren bitartez, herritarrentzako arreta unibertsala bermatze aldera, beren oinarrizko beharrak asetzeari dagokionez.

**Hogeigarrena.** Nafarroako Parlamentuak aitortzen ditu Nafarroako aniztasun politiko, sozial, linguistiko eta identitarioa, gure erkidegoaren elementu aberasgarriak direlakoan, eta apustu egiten du, halaber, elkarrenganako errespetua eta identitatearen arloko inposaketarik eza bezalako printzipioen defentsaren alde, eta pertsona guztiek hizkuntza, identitatea, aniztasun politikoa eta aniztasun soziala direla-eta dauzkaten eskubideak bermatzearen alde.

**Hogeita batgarrena.** Nafarroako Parlamentuak berriro adierazten dizkie terrorismoaren biktimei bere babesa, ulermena eta elkartasuna, eta aitortzen die demokraziak haiekin duen betiereko zorra, askatasunaren eta justiziaren aldeko borrokaren ikur iraunkorra baitira.

**Hogeita bigarrena.** Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa adierazten du defizitaren helburua betetzearekin, hori ezinbestekoa baita gure ekonomiarekiko konfiantza berreskuratzeko; halaber, enplegu-sorrera erraztera bideratutako neurrien bitartez ekonomiaren lehiakortasuna areagotzea eta politika sozialen eta zerbitzu publikoen finantziazioa bermatzea ahalbidetzen duten politiken aldeko apustua adierazten du.

**Hogeita hirugarrena.** Nafarroako Parlamentuak, beste behin, bere konpromisoa erakusten du autogobernuarekin eta Nafarroako Foru Komunitatearen jatorrizko eskubide historikoekin, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren eta Espainiako Konstituzioaren esparruan.

**Hogeita laugarrena.** Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa adierazten du arrazionalizazio administratiboarekin, traba burokratikoak deuseztatzearekin eta araudia eta haren prozedurak sinpletzearekin, bikoiztasunak saihesteko eta administrazioak kostu txikiagoa izan dezan herritarrentzat.

**Hogeita bosgarrena.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du arlo fiskalean daukagun eskumena dela-eta Espainiako Gobernuari eska diezaion gure erkidegoak Econfinen lantaldearen bileretan parte hartzea, hitzarmen ekonomikoan eragina izan dezaketen gaiak eztabaidatzen direnean, Foruaren Hobekuntzako 65. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Lege Gordailua: NA – 363-1995 ISSN: 2254–1950